




IZT

ERALDAKETA DIGITALEAN,
BEHAR DUZUN BIDELAGUNA

 IZTSISTEMAK

 IZTPROGRAMAZIOA

 IZTCLOUD

Martin Ugalde
Kultur Parkea - 20140
Andoain (Gipuzkoa)
telf: 0034 943 30 43 15

Metroalde eraikina
Bilbo-Galdakao errep. 6A
1-J bulegoa
48004 Bilbo (Bizkaia)
telf: 0034 946 650 075

e-mail: info@izt.eus
web: www.izt.eus



IZT

IZT
IZT
IZT

IZT

IZT 2005. urtetik eraldaketa digitalean eragiten

2005. urtetik bezeroen eraldaketa digitalean bidelagun izan da IZT, esperientzia teknologiko eraginkorrenaren etengabeko bilaketan. Zentzu horretan, eta bezeroek IKTen inguruan dituzten beharrak asebetetzeko asmoz, **etika** profesionalari, zerbitzuaren **kalitateari** eta etengabeko **hobekuntzari** arreta berezia jartzen diogu.

Sorreratik, gure helburua bezeroei IKT zein informazioaren segurtasun eta pribatutasun alorretan aholkularitza hurbila eta profesionala eskaintzea izan da, eta honek egun duen garrantziaz jabetuta, IZTk aterpetzen dituen zerbitzu guztietan barne biltzea.

Lau adarretan biltzen ditugu gure zerbitzuak, bezeroei arreta eraginkorragoa eskaini asmoz: **Aholkularitza, Informazio sistemak, Cloud zerbitzuak** eta **Aplikazioen programazioa**.

Kooperatiba gara eta balore kooperatiboekin egiten dugu lan. Gure bazkide zein langileen ongizateak kezkatzen gaitu, gure ingurunearekiko ardurarekin eta euskararen aldeko konpromisoak hartuz.

Orain arteko ibilbidean ikasitakoa izango da etorkizuneko bide orria. Zuekin, zuen bidelagun izanik eraldaketa digitalean bide egokiak aurkituz.






Aholkularitza

IKTez hitz egiterakoan, normalean, gailuen ikuspuntutik aritzen gara, eta hori, gure ustez, ez da biderik zuzenena. Bistan da gailuek funtzio oso garrantzitsu bat betetzen dutela baina, gure ustez, fokua gorago jarri behar da eta **nola egin erabaki aurretik** zer egin pentsatu eta erabaki behar da.

IZTn plan bat osatu eta bidea egiten lagunduko dizugu.

- ♦ **Auditoretzak/diagnostikoak** Nola gauden jakitea garrantzitsua delako.
- ♦ **Plan estrategiko digitalak** Nora joan nahi dugun erabaki behar dugulako.
- ♦ **Kontingentzia planak** Ezbeharren aurrean nola jokatu zehaztu behar dugulako





Informazio sistemak

Informazioa baliatzen duten sare, gailu eta inguruneei deitzen diegu sistemak. Hauek ondo diseinatu, hedatu, inplementatu eta mantentzea gakoetako bat da antolakunde zein udalen jarduera eraginkor eta segurua bermatzeko.





IKT sistemen diseinua eta ezarpena

Informazioa kudeatzeko sareen ingeniari-tza eta tresnen konfigurazioa diseinatu eta inplementatzen ditugu: LAN eta WAN sare korporatiboak, *internet* azpiegiturak, sareen segurtasuna, irisgarritasun irtenbideak, haririk gabeko komunikazioak, bideo zaintza sistemak, telelana eta lanpostu hibridoak, zerbitzari mota desberdinak...



IKT sistemen mantenu zerbitzua

Edozein informazio sistemaren eraginkortasuna mantentze zerbitzu egoki batean oinarritzen da.

Honako oinarriak eskaintzen ditugu:

- ♦ Aholkularitza IKTetan.
- ♦ Mantentze prebentiboa: gertaerei aurre hartuz.
- ♦ Mantentze proaktiboa: etengabeko hobekuntzari arreta jarritz.
- ♦ Mantentze erreaktiboa: gorabeherak minimizatuz.



Informazio segurtasunaren kudeaketa sistema (ISKS)

Informazioaren gizartean, informazioa bera baino balio aktibo garrantzitsuagorik ez dago. IKTen esparruan egungo zein etorkizuneko erronkarik handiena informazioa egoki kudeatu eta babestea da. ISO 27001 arauan oinarrituta segurtasun politika eta prozedurak zehaztu, arrisku planak egin eta etengabeko hobekuntza bultzatuko duen kudeaketa sistemak inplementatzen lagunduko dizugu.

Cloud-lainoa zerbitzua

Informazioa zein aplikazioak edozein lekutik atzigarria izateko, *data center* batean kokatu behar da. Horri deitzen diogu Cloud edo Lainoa.

Informazio sistemaren konplexutasunaren arabera, *cloud computing* zerbitzu ezberdinak eskein ditzakegu: oinarriko estatatzek, laino korporatiboak, laino hibridoak...

Helburu horretarako, IZT-n aliantza ezberdinak egin ditugu *data center* anitzekin, eta horrela, eskaintza zein plan egokituak eskaintzeko ahalmena dugu, web orri sinple bat estatatzetik sistema konplexuenetaraino, domeinu ezberdinak eta posta zerbitzuak barne.

- ♦ **Ostatatze estandarra (Plesk 10, 100, 300).**
- ♦ **Zerbitzari pertsonalizatuak (Ostatatze profesionala, VPS-ak...).**
- ♦ **BigBlueButton zerbitzuak (norbanakoa, korporatiboa).**






Programazioa

Internetek eta web programazioak aukera anitzak eskaintzen ditu kolaborazio-tresnak garatzeko: intranet-estranetak, ekintza eta proiektuen kudeaketa, CRMak, lan egutegiak, orduen kontrola, marketin tresnak ...

IZTk framework ezberdinak erabiltzen ditu mota guztietako aplikazioak garatzeko, bezeroen beharretara egokitu eta teknologia modernoek baliatzeko.

Neurrira egindako aplikazioak

- ♦ **Intranetak:** barne prozesuen digitalizazioa web gune pribatu batean.
- ♦ **Web orriak:** funtzionaltasun ezberdinez osatutako moduluekin.





Eta gainera, zure antolakundeak behar dituen Software zein Hardware horniketa.

Eraginkortasunaren bila, merkatuko marka teknologiko indartsuenekin elkarlanean, puntako IKT soluzioak eskaintzen ditugu. Bezeroen beharrak aztertu eta azpiegitura teknologia hobetzeko soluzio eraginkor eta errentagarrienak proposatzen dizkiegu:

Hardware:

- ♦ Zerbitzariak
- ♦ Ordenagailuak
- ♦ Firewallak
- ♦ Switchak
- ♦ Segurtasun kopien sistemak

Software:

- ♦ Open source aplikazio eta sistemak
- ♦ Microsoft inguruneak
- ♦ Aplikazio teknikoak
- ♦ Kudeaketa aplikazioak

IZT



Martin Ugalde
Kultur Parkea - 20140
Andoain (Gipuzkoa)
telf: 0034 943 30 43 15

Metroalde eraikina
Bilbo-Galdakao errep. 6A
1-J bulegoa
48004 Bilbo (Bizkaia)
telf: 0034 946 650 075

e-mail: info@izt.eus
web: www.izt.eus